



"ILUSIOA ETA INDARRA DUGU LOMCE-RI PLANTO EGITEN JARRAITZEKO"

HPT

Kaixo, egun on gerturatu zareten guztio.

Askotan aipatu dugun bezala, HPTren asanblada ezberdinetan horrela erabakita, ikasturte honetan erronka handia jarri genion gure buruari. Hau da, LOMCE ez aplikatzeko urratsa praktikoak ematea.

Ez da erronka makala. Oraindik sortzen dagoen mugimendua gara Hezkuntza Plataformen Topagunea, eta hedatzen eta handitzen joateaz gain LOMCE ekiditzen aritu gara. Ikasturte oparoa izan da, mugitua. Ez guk nahiko genukeen norabidean, hala ere. Zoritzarrez, 2014-2015 ikasturtea inposaketaren urtea izan da.

Ipar Euskal Herriko ikastolen kontrako jazarpena, Ziburuko ikastolaren kasua, adibidez; Nafarroan D ereduko irakasleen kontrako zorgin ehiza edota Euskal Herria aintzat hartzen duten testu-liburuen kontrako debekuak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan momentura arte LOMCEren aplikazio zuzenera garamatzen Heziberri plana...

Eta guzti honekin batera, LOMCE eta 3. mailako azterketak. Hala ere, argi izan dugu hasieratik eta lortu dugu! LOMCEren aplikazioa eten dugu eta 3. mailako azterketei planto egin diegu, zorionak guztiei!

NAFARROA

Aipatu den bezala, Nafarroan egoera iluna bizi izan du euskal hezkuntzak. Euskal Herriaren ukazio instituzionala, euskaraz ikasteko traba eta debekuak, murrizketak... Erregimenak hezkuntza nahi bezala erabili du. Doktrinamendurako tresna gisa erabili du UPNk hezkuntza. Hala ere, hezkuntza mugimendua altxatu eta hamaika mobilizazio egin ditugu. Eta azkenean, hezkuntzatik ere, lortu dugu erregimenarekin bukatu eta bestelako hezkuntza eredu bati ateak irekiko dizkion alternatiba eraikitzeke urratsak ematea.

3. mailako azterketari dagokionean, SORTZEN elkartearen deialdiari jarraiki, 1.000 sinadura baino gehiago aurkeztu genizkion Iribas Kontseilariari. Eta horren ondortik, 3. mailako azterketa ikastetxe guztietan, bai, guztietan, egitera behartu gintuztenean familia askok planto egin genion.

Txantreako 8 familia ere itxialdia burutu zuten. Zorionak guztioi, Nafarroan eguneroko izerdi eta lanarekin bagoaz bestelako hezkuntza eredu baten aldeko urratsak sendotzen!

ARABA

Araban harro gaude ere egindako lanaz. Badira urte batzuk hezkuntza bilgune ezberdinetan antolatzen hasi ginenetik eta horrek fruituak eman ditu. Tokian tokiko problematika ezberdinak aintzat hartu eta hezkuntzarekiko dugun kezka baliatuz elkarlanean ekin genien.

Arrakastatsuak izan dira, oso, planteatu ditugun dinamikak. Dagoeneko hamaika dira LOMCErik gabeko herriak izendatutakoak. (Agurain, Zalduondo, Maeztu, Amurrio...)



3. mailako azterketari dagokionean, aukeraturiko sare publikoko zazpi ikastetxetatik seik egin diote planto. Araban ere lortu dugu! Zorionak!

BIZKAIA

Bizkaian ere pozik gaude lortutako emaitzeko. Ikasturte hasieran hezkuntzaren baitan antolatzea zail xamar egin bazitzaigun ere, ikasturteak aurrera egin ahala gero eta gehiago izan gara. Dagoenako herrialde osoko eskualde guztietan gaude HPTren baitan saretuta.

Plantoaren dinamikari dagokionean, gainera, Bizkaia herrialde kaltetuenetakoa izan da. Honen barruan, gainera, ezkeraldea izan da 3. mailako azterketa egiteko dei gehien jaso dituen eskualdea. Eta harro esan dezakegu tamainako erantzuna eman diogula. Bizkaia eta ezkeraldea batez ere LOMCErik gabeko gunea dira! Etengabeak izan dira azterketa egiteko jaso ditugun deiak gure ikastetxeetan. Ezjakintasuna eta nahastea ikaragarria izan da. Hala ere, Santutxuko objezio jarrera berehala orokortu genuen eta lortu dugu Bizkaiko ikastetxeetan LOMCEri planto egitea. Gure aldetik beraz, zorionak guztiei!

GIPUZKOA

Gipuzkoa ez da bestelako izan. Kostata bada ere ganoraz heldu diogu dinamikari. Jakin bagenekien 3. mailako azterketa gurean ere tokatu zitekeela eta ikastetxez ikastetxe eta herriz herri gaia lantzeari ekin genion. Eta jaso dugun erantzuna ikaragarri ona izan da.

Dakigula, gurean, Ordiziako eta Orioko ikastolak izan ziren froga egiteko hautatuak. Eta espero genuen bezala, inposaketa hauen aurrean altxatu eta herri gisa erantzun genuen. Lortu genuen LOMCE gure ikastoletan ez sartzea. Jarrera desobedientea orokortua izan da, hala ere. Ikuste besterik ez dago Lezoko "Piraten" eguna, edo Hernaniko "Xirimiri" jaia, edo Oiartzungo argazki benetan erraldoiak.

Eta herri ezberdinetan eman ditugun hitzaldiak ez dira gutxi izan, herritar asko izan dira aktibatu izan direnak eta ziur gaude askoz gehiago izango garela hemendik aurrera. Prest gaude hurrengo ikasturteari gogoz ekiteko, informatzeko, kalteak gairatzeko eta gurea zein izan behar duen aldarrikatzeko.

Eta honekin ere, aipatzea besterik ez, eraikitze klabeen dauden adibide eredugarriak ere baditugula gure inguru hurbilean, Orioko curriculum kasu. Prest gaude ta bagoaz! Gurean ere, datorren ikasturtea indarrez hasteko nahikoa gogo dugu! Zorionak guztiei!

HPT

Hau da gure errealitatea. Hau gara Hezkuntza Plataformen Topagunean. Beti esan dugu txikitasunetik urrats handiak ematen gabiltzala, eta hala da. HPT-tik 3. mailako azterketari planto egiteko deialdia zabaldu genuenetik ikaragarria izan da sortu den zalaparta. Hezkuntza eragileak posizionatu eta plantoarekin bat egin dute, herritarrek hezkuntzaren baitan antolatu eta aktibatu dira, eta Hezkuntza Sailburu ezberdinen amets gaiztoa izan gara azken asteetan.

Eta hala izaten jarraituko dugu argi dugulako zer den batzen gaituena. Berriz diogu:
-Inposaketa ororen kontra gaude.



HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEA

- LOMCE ez aplikatzeko konpromisoa dugu.
- Eta egunez egun gure hezkuntza sistema propioa eraikitzen ari gara.

Horregatik, aurtengo ikasturtea LOMCEren aplikazio urtea izan bada ere, indartsu gaude. Beraz, ozen aldarrikatu nahi dugu, indar nahikoa dugu aurten bezala datorren ikasturtean LOMCEri planto egiten jarraitzeko.

Gure hezkuntzaren aldeko lana oztopatu dezakeen edozerri aurre egiteko muskulu nahikoa dugula erakutsi dugu, beraz, datorren ikasturtean ere Hezkuntza Sistema Propioaren alde lanean jarraitu dugu, eta beraz, LOMCEri planto egiten jarraituko dugu.

Zorionak guztioi!



HEZKUNTZA PLATAFORMEN TOPAGUNEA

hezkuntzaplataforma.topagunea@gmail.com
www.hezkuntzaplataformatopagunea.blogspot.com.es
[@Hezk_Topagunea](https://www.instagram.com/Hezk_Topagunea)